ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Bai, kontua da mozioa edo proposizioa guk aurkezten dugula eta beraz transakzionatzeko aukera baliatuz, ba... hau da aurkezten dugun mozioa,

ESPAINIAR ESTATUAREN AZKEN ERASO ERREPRESIBOEN AURREAN MOZIOA:

Urriaren 13an euskal independentisten aurkako beste operazio polizial eta judizial bat gauzatu zen. Horren ondorioz, Euskal Herriaren eskubideen defentsan aritu diren ezker abertzaleko hamar militante atxilotu zituzten. Egun batzuk geroago, preso politikoen eskubideen defentsan aritu diren beste zortzi lagun atxilotu eta espetxeratu ziren.

MOCIÓN ANTE LOS ÚLTIMOS ATAQUES REPRESIVOS DEL ESTADO ESPAÑOL:

El 13 de octubre tuvo lugar otra operación policial y judicial contra los independentistas vascos.

A consecuencia del mismo fueron detenidos diez militantes de la izquierda abertzale que han trabajado en la defensa de los derechos de Euskal Herria. Unos días más tarde fueron detenidos y encarceladas otras ocho personas que han trabajado en la defensa de los derechos de los presos políticos.

Joan den urriaren 17an milaka eta milaka gizon eta emakumek Donostiako kaleak bete zituzten. Gehiengo zabal batek beste behin ere, agerian utzi zuen inposatu nahi diguten blokeo egoera honen aurrean ez dagoela prest subjektu pasiboa izateko. Gehiengo sindikalak egindako deialdi bateratuak jasotako atxikimendu eta babes zabalak argi erakutsi zuen mota honetako iniziatibak direla jendartea eskatzen ari dena.

Azaroaren 23an euskal gazte independentisten aurkako beste operazio polizial eta judizial bat burutu zuten. Horren ondorioz, hegoaldeko lau herrialdetan Euskal Herriaren eskubideen defentsan aritu diren 34 gazte atxilotu zituzten. Poliziek 90 bat miaketa burutu zituzten: etxeak, gaztetxeak, elkarteak, peñen egoitzak, tabernak, etbr…

Atxiloketa hauek arrazoi politikoak direla medio burutzen dituzte, oinarrizko eskubideak urratuz eta berme juridikoak ukatuz. Kasu honetan operazio mediatiko poliziala erabiliz. Bestalde, esan beharra dugu, makro-operazio hau testuinguru politiko zehatz batean egiten dela.

Izan ere, hilabete hauetan ezker abertzalea eztabaida sakonean murgildua dago. Euskal Herria aldaketa politikora eraman eta eszenatoki demokratiko bat

El pasado día 17 de octubre miles y miles de hombres y mujeres abarrotaron las calles de Donostia. Y una vez más una amplia mayoría dejó bien claro que no está dispuesta a ser sujeto pasivo ante esta situación de bloqueo que nos quieren imponer. El llamamiento unitario de la mayoría sindical obtuvo una respuesta masiva, dejando bien claro que la ciudadanía demanda este tipo de iniciativas.

El 23 de noviembre llevaron a cago otra operación policial y judicial contra jóvenes independentistas vascos. Como consecuencia en los cuatro territorios de hegoalde, fueron detenidos 34 jóvenes que han actuado en la defensa de Euskal Herria. Los policías llevaron a cabo cerca de 90 registros: casas, gaztetxes, sociedades, sedes de peñas, bares...

Estas detenciones que se producen por razones políticas, atentan contra derechos básicos y niegan las garantías jurídicas, en este caso, mediante una opoeración mediatico policial. Por otro lado, hay que aclarar que esta macro operación se produce dentro de un contexto político muy concreto.

Y es que durante estos meses la izquierda abertzale está inmersa en profundos debates. Está trabajando para definir estrategias eficacez para llevar a Euskal Herria hacia

eraikitzeko estrategia eraginkorra definitzeko lanean dabil, eta argi dago honi beldurra diola Estatu espainiarrak. Eztabaida hau eta ezker abertzalearen iniziatiba politikoa zapuzteko erabili duten estrategia izan da.

el cambio político y poder construir un escenario democrático, y está claro, que eso produce temor en el Estado Español. Era cosa sabida que que el Estado iba a valerse de operaciones políticas como esta para arruinar este debate y la iniciativa política de la izquierda abertzale, puesto que la única herramienta del Estado español es la represión.

PPk eta PSOEk 2001eko abenduan sinatu zuten itun antiterroristaren babespean, espainiar estatua oinarrizko eskubideak zapaltzen ari da. Eta horrekin amaitu beharra daukagu. Azken aste hauetan egin diren atxiloketak eta espetxeratzeko agindu horien atzean, estatuak ideia jakin batzuk dituzten herritarrei parte-hartze politikorako eskubidea ukatzeko jarrera politikoa ezkutatzen du. Ildo berean, euskal preso politikoen eskubideen defentsan aritu diren pertsonen espetxeratzeak agerian uzten du, estatua estrategia errepresiboaren baitan lerrokatuta dagoela.

Al amparo del acuerdo antiterrorista firmado por el PP y el PSOE en diciembre del 2001, el estado español está perpetrando un verdadero genocidio político y tenemos que acabar con eso. Detrás de las detenciones y encarcelamientos de estas últimas semanas, el estado esconde una actitud política de negación del derecho a la participación política de algunos ciudadanos que tienen determinadas ideas. En ese mismo sentido, el encarcelamiento de personas que han estado trabajando en la defensa de los derechos de los presos políticos vascos ha dejado de manifiesto que el estado está alineado en una estrategia represiva.

Izan ere, estatuak justizia helburu politikoak lortzeko erabiltzen duela salatu behar dugu. Horren adibide ditugu, Euskal Herrian disidentzia politikoaren aurka egiteko Auzitegi Nazionala bezalako epaitegi bereziek egunero erabiltzen dituzten lege eta salbuespen neurriak

De modo, que denunciamos que el estado se vale de la justicia para conseguir sus objetivos políticos. Claro ejemplo de ello son las leyes y medidas de excepción que utilizan todos los días los juzgaos especiales como la Audiencia Nacional para actuar contra la disidencia política en Euskal

Herria.

Historia luzea du gure herriak, eta luze, luzeegi, jo du gatazkak. Udal hau osatzen dugun guztiok ondo baino hobeto dakigu errepresioaren bidea ez dela bidea. Errepresioak ez dio gatazkari konponbidea ekarriko. Gatazka gainditzeko errepresioaren aldeko apustuak gainditu behar dira.

Nuestro pueblo tiene una historia muy larga, y el conflicto dura ya demasiado. Todos los que componemos este Ayuntamiento sabemos que la represión no es el camino. La represión no traera la solución del conflicto. Para superar el conflicto hay que superar las apuestas por la represión.

Euskal herritarroi hitza eta erabakia zor zaigu, gure etorkizuna askatasun osoz eta egitasmo politiko guztien artean erabakitzeko eskubidea errespetatzean datza konponbidea.

A los ciudadanos de Euskal Herria se nos debe la palabra y el poder decidir. La solución pasa por respetar el derecho a decidir con total libertad, entre todos los proyectos políticos.

Hau guztia dela eta, honako mozio hau aurkezten dugu Udalbatzak eztabaida eta onar dezan

Siendo esto así, presentamos la siguiente moción para que sea debatida y aprobada por el pleno:

1.- Udal honek bere elkartasuna helarazi nahi die azken aste hauetan atxilotuak eta espetxeratu dituzten pertsonei zein hauen senideei. Halaber, inkomunikazio erregimenak, legeria antiterroristak eta dispertsioak eragiten duten eskubideen urraketa salatu nahi du.

1.- Este Ayuntamiento quiere mostrar su solidaridad a las personas que han sido detenidas y encarceladas las últimas semanas y a sus familiares. Así mismo desea denunciar la conculcación de derechos que supone la dispersión, la ley antiterrorista y el régimen de incomunicación

2.- Udal honek euren jardun politikoagatik espetxeratu dituzten pertsona hauek berehala aska ditzatela exijitzen du.

2.- Este Ayuntamiento exige que las personas que han sido detenidas por su labor política sean puestas en libertad de inmediato

3.- Udal honek gazte mugimendu, erakunde politiko,

3.- Este Ayuntamiento quiere hacer llegar su solidaridad a las

sozial eta komunikabideen aurka zabaldutako prozesuetan gutxieneko berme juridikorik ez duten ehunka pertsonei bere elkartasuna helarazi nahi die.

4.-Udal honek Alderdien Legea berehala deroga dezatela ere galdegiten du. Lege hori berez da injustua, eta aukera politiko eta sozial bat desagerrarazteko ari dira baliatzen.

5.-Udal honek espainiar estatuaren jardunbide antidemokratiko, autoritario eta errepresiboa salatzen du. Jardunbide horrekin gatazka luzatu besterik ez da egiten.

6.- Udal hau osatzen dugunok ez gaude egoera hau onartu eta etsitzeko prest. Horrexegatik, gatazka honi irtenbide demokratikoa bilatzeko gure konpromisoa berresten dugu. Euskal Herri osoan, pertsona guztien eskubide guztiak, errespetatzetik etorriko den irtenbide demokratikoa.

7.- Azkenik, onartutakoaren berri herritarrei eta komunikabideei jakinaraztea erabaki dugu.

cientos de personas que no tienen las mínimas garantías jurídicas en los procesos abiertos contra movimientos de jóvenes, contra organizaciones políticas y sociales y contra los medios de comunicación.

4.- Este Ayuntamiento solicita asimismo que la ley de partidos sea derogada inmediatamente. Esta ley injusta de por sí, está siendo utilizada para hacer desaparecer una opción social y política..

5.- Este Ayuntamiento denuncia la actuación antidemocrática, autoritaria y represiva del estado español. Actuando así lo único que se consigue es dilatar el conflicto.

6.- Los que componemos este Ayuntamiento no estamos dispuesto a desistir y aceptar esta situación. Por eso mismo nos reafirmamos en el compromiso de buscar una solución democrática para el conflicto.

7.- Por último, decidimos hacer público lo aprobado, y comunicarlo tanto a los ciudadanos como a los medios de comunicación.

Eta hau da aurkezten dugun mozioa, azkenengo asteetan ba... ikusi ahal izan ditugun ba... sarekada eta atxiloketen aurrean ba... udal honek bere posizioa edo bere erabakia hartu dezan,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Nik gauza bat, ez eztabaida gehiegi luzatzeagatik eta gai berdinari buruz tratatzen ari garelako PNV-k aurkeztu duen mozioa ere esan nahi dut, eztabaida berdinean... honetan eztabaidatuko dugu ez errepikatzeagatik gero berriz ere.
Honekin esan nahi dudana da bi aldiz bozkatuko dugu, bai bat eta gero bestea, baina eztabaida ba... bueno pixkat agilizatze aldera, eh?

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Eztabaida orain?
Bueno, guk ez dugu....

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ez, Lide asunto bategatik, bakarrik. Esan nahi dut gai berdina da, berdinari buruz jardungo dugu. Besteetan gertatu izan da, adibidez, mozioa eta kontramozioa, mozio bat eztabaidatu eta gero berriz kontramozioan berriz ere gai berdinari buruz eztabaidatzen da.
Esan nahi dut, eztabaida bat burutu dezagun, porque gai berdinari buruz ari gara, nahiz eta gero ezberdintasuna egingo dugun, eh?

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Bale, orduan nik usten dut, egokiena dela gurea irakurtzea eta gero bata eta bestea bozkatzen dugu, ez?

Urriaren 13an, ezker abertzaleko hamar militante, Baltasar Garzon epaile espainiarraren aginduz polizia nazionalak atxilotu ditu.

Polizia operazio hau, gure gizartearen gehiengoak defendatzen duen, giza eskubide guztien defentsa irmoan eta herri honen gehiengo demokratikoaren borondatearen errespetuan oinarrituko den konponbide elkarrizketatuaren aurkako

El 13 de octubre la Policía Nacional, siguiendo las órdenes del juez Baltasar Garzón, detuvo a diez militantes de la izquierda abertzale.

Esta operación policial, se enmarca dentro de una estrategia política que es contraria a una solución dialogada basada en el respeto a la voluntad de la mayoría democrática de este país y en la firme defensa de todos los derechos humanos.

estrategi politiko batetan kokatzen da.

Aspaldian ezagutu ez den bezalako manifestazioa egin zen Donostian, gehiengo horren borondatea adierazteko, eta bai batzuk eta bai bestek ezarri nahi diguten irtenbide-gabeko eszenatoki politiko honi aurre egiteko prest dagoela adierazteko ere.

Esta operación policial, se enmarca dentro de una estrategia política que es contraria a una solución dialogada basada en el respeto a la voluntad de la mayoría democrática de este país y en la firme defensa de todos los derechos humanos.

**Guzti honen aurrean, udal honek honakoa adierazten du;**

**Ante todo ello este Ayuntamiento quiere manifestar lo siguiente;**

**1.-** Udalak aipatutako atxiloketak arbuiatzen ditu.

**1.-** Este Ayuntamiento rechaza dichas detenciones.

**2.-** Aldarrikatu nahi du alderdi eta irizpide politiko guztien politikarako eskubidea; eskubide hori guztiontzat, baldintza berdinetan, Euskal Herriko gizarte eta politika mailako jardueratan aritzeko. Hortaz, askatasun eta oinarrizko eskubideen defentsak, bermea behar du, norbanakoen irizpide politikoekiko eta pertsonen gertutasunarekiko egoeren gainetik

**2.-** Quiere proclamar el derecho a hacer política de todos los partidos y criterios políticos, el derecho de ejercer en Euskal Herria a nivel político y social que debe de ser el mismo para todos y ejercerse en igualdad de condiciones. La defensa de los derechos y libertades, necesita garantías por encima de criterios políticos y situaciones de afinidad personal.

**3.-** Deia luzatu nahi dio Udalak Estatuko Gobernuari, berari dagozkionetan, eta premiazko erara, bertan behera utzi dezan Alderdi Politikoen Legea, 2002ko ekainaren 27an onartua, aipatu printzipioen aurka egiten baitu bete betean.

**3.-** El Ayuntamiento hace un llamamiento al Gobierno del Estado, para que en lo que le concierne, y por procedimiento de urgencia, derogue la Ley de Partidos aprobada el 27 de junio de 2002, dado que atenta de lleno contra los principios antes

mencionados.

**4.-** Udalak, orobat, bere konpromisoa sinatu nahi du giza eskubide guztien defentsa irmoan eta gure herriak etorkizuna demokratikoki erabakitzeko duen eskubidean oinarrituko den normalkuntzaren alde.

**4.-** El Ayuntamiento asimismo quiere firmar su compromiso en la firme defensa de todos los derechos humanos y a favor de la normalización basada en el derecho de nuestro pueblo a decidir su futuro democráticamente.

**5.-**Lan politikoa egiteagatik herritarrak atxilotu eta espetxeratzea gaitzesten du.

**5.-**Desaprueba la detención de ciudadanos por la labor política que llevan a cabo.

Hori da gure mozio alternatiboa,

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Nik bakarrik esan, bi mozioen alde nagoela eta bi mozioak aldeko botoa emango diogula bi mozioei,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ba... ni ere motza izateagatik, guk ere posizio berdina daukagula, adierazi.
Bateren batek zerbait gehiago, Andoni

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Ez dakit, posizioa momentuan EA-k eta Aralar/Altenatibak jarri dute mahai gainean, EAJ-PNV-k bere mozio alternatiboa jarri du mahai gainean, ez dakigu ba... alternatiboak jarri baldin badira mahai gainean izango da ba... aurkeztu dugun hau ba... bueno mejoratzeko edo onartzeko modukoa iruditzen ez zaiola behintzat, niri bai behintzat komentatuko nahiko nuke, ba.. bueno guk gurea propioa aurkeztu dugula onartua izan dadin, gurea ba... iruditzen zaigu azken aste honetan ere gertatutakoei erantzuten diola eta horren aurrean ere iruditzen zaigu orain dela hilabete t´erdi emandako atxiloketak eta aste honetan ikusi ditugunak inpultso eta estrategia berdinari erantzuten diotela eta iruditzen zaigu erantzuna berdina izan behar duela, atxilotuak eta atxilotuen familiak berdin sufritzen baitdute eta eskubideak berdin urratsen baitdira ba... nahiz 50 urte hurbil egon edo 20 urte eduki; iruditzen zaigu ba... gaztediari ba.. gure babesa berdin-berdin eman behar diogula beste pertsona batzuk atxilotuak izan direnean sentitu izan duten bezalaxe eta eman zaien bezalaxe; iruditzen zaigu gurea konpletoagoa dela eta geurea ba... lehendabizi bozkatu eta onartzeko ekartzen dugu.

EAJ-koa ez zaigu desegokia iruditzen, onartzeko modukoa ere iruditzen zaigu baina geurea osoagoa, egokiagoa ikusten dugu, geurea denez horrela beharko du, ez? Guk aurkezten badugu ba... gure pentsamoldea eta gure iritzia eta gure mezua bertan egokiago txertatua egongo da eta EAJ-PNV-ren aurrean abstenitu egingo gara, geurea onartuta iruditzen zaigulako guk onartu nahi dugun hori, ondo jasota dagoela

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Oso ondo,
Bozkatzera pasako gara, edo zerbait... bozkatzera? PNV,
Bueno aurrena bozkatuko dugu, barkatu, Talde Mistoak aurkeztutakoa eta gero PNV-k aurkeztutakoa.

Talde Mistoak aurkeztutakoa, PNV?

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Kontra

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Kontrako botoa, Zuek?

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Aldeko botoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botoa, Talde Mistoak?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Aldeko botoa

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botoa eta EA-k ere aldeko botoa

| ERABAKI ZATIA | PARTE RESOLUTIVA |
|---|---|
| Aldeko botuak: 6 boto (3 Talde Mistoa; 2 Aralar/Alternatiba, 1 EA;) | Votos a favor: 6 votos ( 3 Talde Mistoa; 2 Aralar/Alternatiba;1 EA;) |
| Aurkako botuak: 3 (EAJ-PNV)<br>Abstentzioak: 0 | Votos en contra: 3 (EAJ-PNV)<br>Abstenciones: 0 |

**LEHENENGOA:** ESPAINIAR ESTATUAREN AZKEN ERASO ERREPRESIBOEN AURREAN TALDE MISTOAK AURKEZTURIKO PROPOSAMENA ONARTZEA,

**PRIMERO:** APROBAR LA PROPOSICION PRESENTADA POR EL GRUPO MIXTO: ANTE LOS ÚLTIMOS ATAQUES REPRESIVOS DEL ESTADO ESPAÑOL.

Eta PNV-k aurkeztutako gai berdinari buruzko mozioa,

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Gure aldeko botoa

ALKATE-LEHENDAKARIA.: PNV-k aldekoa

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Aldeko botoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botoa,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Ez dakit igual orain, por ser vengativo abstenitu egingo gara

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Abstentzioa Talde Mistoak eta EA-k ere aldeko botoa

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 6 boto (3 EAJ-PNV; 2 Aralar/Alternatiba, 1 EA;)

Aurkako botuak: 0
Abstentzioak: 3 ( Talde Mistoa)

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 6 votos ( 3 EAJ-PNV; 2 Aralar/Alternatiba;1 EA;)

Votos en contra: 0
Abstenciones: 3 (Grupo Mixto)

**LEHENENGOA:** AZKENENGO ATXILOKETAK DIRELA ETA EAJ/PNV UDAL TALDEAK AURKEZTURIKO PROPOSAMEN ALTERNATIBOA ONARTZEA,

**PRIMERO:** APROBAR LA PROPOSICION ALTERNATIVA PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL EAJ/PNV: EN RELACION A LAS ULTIMAS DETENCIONES.

UDAL GOBERNUAK AURKEZTURIKO PROPOSAMENA.- Titulua hori jarri diegu: **BENEDIKTO XVI.A AITA SANTUAK PRESERBATIBOAZ EGITEN DITUEN AZALPENEAN GAINEZKO PROPOSAMENA (EHGAM).-**

Bere garaian, bere deklarazioak ehundoko eztabaida sortu zuten, batez ere osasungintza arloan diharduten jende askoren gain eta ba.... horren aurrean EGHAM-ek aurkezten du mozio bat, guk gurea egiten duguna, Udal Gobernu bezala eta hemen hona ekartzen duguna, ez? batez ere, zientifikoki probatuta dagoelako gaur egun preserbatiboaren ba... bueno balioa osasunerako ba... bueno dauzkan balio onak eta zer erreperkusio daukan osasun arloan ikusta, ba... bueno zenbait deklaraziok eta batez ere deklarazio horiek ba... zenbat arloetan eta zenbait gizartetan ehundoko eragina daukatenean ba... onartu ezina bihurtzen direla, ez? eta onartu ezinak bihurtzen diren neurrian botere publikoei tokatzen zaiguna da ba... zerbait gutxienez esatea, ez? azken finean ez garelako hitz egiten ari bateri edo besteari zer iruditzen zaion paretaren koloreak beltza edo gorria izan behar duen baizik eta osasunari buruz hitz egiten ari gara eta osasunaren aurrean ba... jende gutxik bakarrik edo hitz egin beharko luketeenak izango lirateke arlo horretan iaioak dauden pertsonek, ez? eta hortik aurrerako guztiek egin behar dutena da gutxienez errespetatu, ez? eta batez ere, jakinda adierazpen horiek non egin zituen, Afrikan egin zituela eta Afrikan egunero-egunero ba... HIES-arengatik ehundoko ehundaka hildako daudela, ez?

Beraz, zentzuz jokatu behar dugu guztiok eta nik usten dut mozio honen bidez, adierazi nahi duguna da, zentzuz jokatu behar dugula eta ardura duten guztiei ba... botere batean egon edo beste batean egon edo ordezkatzen dutena ordezkatzen dutela ikusi gutxienez ba.... arduraz jokatu behar dela batez ere horrelako arloetan, ez?

Eta bueno... Gobernu bezala bat egiten dugu esandako mozio honekin eta iruditzen zaigu salagarria denean ondo salatu behar gai bat dela, eh? PNV, Barkatuko didazue, momentu...

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Nik egingo dudana da mozioa irakurri, Iñaki ez dagoen bitartean,

Kontua da abenduaren 1ean GIB-aren kontrako HIES-aren kontrako edo SIDA-ren kontrako borrokaren egun internazionala dela eta hori dela eta ba... bere garaian Benedikto XVI. Egin zituen deklarazio horiek ba... beste erakunde batzuk egin duten bezala, ba... guri ere aurkeztu digute mozioa ba... argudiatu dezagun edo behintzat argi utzi dezagun ba... Benedikto gauza batzuetaz asko jakingo duela baina beste gauza batzuetan erratuta dagoela eta bera erratzea eta batzuk ba... bere errore horretan ba... arrastratzea ba... oso arriskutsua dela, beraz Udalbatzari

EHGAMek, Euskal herriko Gay-Les Askapenerako Mugimenduak, ondoko dokumentua aurkezten du, udal bilkuran eztabaidatzeko: **Benedikto XVI.a aita santuak preserbatiboaz egiten dituen azalpenen gaineko Mozioa edo proposizioa**

JUSTIFIKAZIOA

El colectivo Euskal Herriko Gay-Les Askapenerako Mugimendua (EHGAM) presenta la siguiente **Moción sobre las declaraciones del Papa Benedicto XVI sobre las propiedades del preservativo,** para su debate en el Pleno municipal.

JUSTIFICACION

Guztia ez dut irakurriko, estrakto batzuk aterako ditut, aukeratu dut pixka bat ba... nire ustez mozioak adierazi nahi duenak ba... pixka bat ba... jasota gauza batzuk ba... agian ez dira horren interesgarriak edo kontestualizazio horrenbeste ere agian ez da behar,

1) *Vatikanoko Aita Santuaren adierazpena*. Yaunderan (Camerun), 2009ko martxoaren 17an, Benedikto XVI.a aita santuak hau esan zuen: "**HIESa/GIBaren arazoa EZIN da konpondu preserbatiboen banaketarekin; aitzitik, preserbatiboek arazoa handitu egiten dute".**

(1) *Declaración del Sumo Pontífice del Estado Vaticano*. El pasado 17 de marzo, a su llegada a Yaundé, la capital de Camerún, el Papa Benedicto XVI afirmó que **"no se puede superar (el SIDA/VIH) con la distribución de preservativos, al contrario aumentan el problema"**

(2) *Osasun publikoaren aurkako adierazpena*. Martxoaren 19an, berehala, nazioarteko autoritate mediku-zientifikoek —Nazio Batuen HIESa/GIBaren gaineko Egitasmo Bateratuak (ONUSIDAk), Nazio Batuen Biztanleenak (UNFPAk) eta Osasunerako Munduko Erakundeak (OMEk)— iritzi zioten beharrezkoa zela adierazpen publikoa plazaratzea, Aita Santuak esandakoak zuzentzeko. Erakunde horiek adierazi zuten preserbatiboaren erabilera elementu garrantzi-garrantzizkoa dela GIBa modu integral, eraginkor eta jasangarrian aztertzeko. Era berean, preserbatiboaren promozioaren alde azaldu ziren.

(2) *Declaración que atenta contra la salud pública*. Inmediatamente, el 19 de marzo, las autoridades científicas médicas internacionales (el Programa Conjunto de las Naciones Unidas sobre el VIH/SIDA –ONUSIDA-, el de la Población de Naciones Unidas –UNFPA- y la Organización Mundial de la Salud –OMS-) consideraron que debían hacer una declaración pública para desmentir las irracionales palabras del Papa, señalaron que la utilización del preservativo es un elemento crucial para un enfoque integral, eficaz y sostenible de la prevención del VIH, y recalcaron que conviene acelerar su promoción en la lucha contra el VIH.

**Erakunde horiek birritan adierazi dute gizonezkoentzako latexko preserbatiboa dela GIBa eta sexu bidezko infekzioen aurkako teknologiarik eraginkorrena. Esan gabe doa, bide batez, erakunde horiek inpartzialak eta prestigio handikoak direla**

**Estas organizaciones, cuyo rigor, imparcialidad y prestigio están fuera de toda duda, han asegurado que el preservativo masculino de látex es la tecnología individual disponible más eficaz para reducir la transmisión sexual del VIH y otras infecciones de transmisión sexual.**

Hirugarren puntura pasatuko naiz

(3) *Oihartzun soziala*. Kontuan izan Aita Santuaren adierazpenek mundu-mailan dutela oihartzuna. Halaber, kontuan izan milaka pertsonarengan dutela eragina. Eragin hori, batez ere, GIBak gehien zigortutako lurraldeetan

(3) *Repercusión social*. Hay que tener en cuenta el alcance universal de sus afirmaciones y el **posible impacto sobre el comportamiento de centenares de miles de personas** en el mundo, especialmente en países en los que

gauzatzen da, non eta GIBaren aurkako tresnarik eraginkorrena preserbatiboa denean.
Gurean, berriz, adierazpen horien eragina nabarmena da. Zergatik?
*(a)* gurean Eliza Katolikoak duen ezarpenagatik;
*(b)* apaizek, Eliza Katolikoaren Doktrinaren zabaltzaile diren aldetik, preserbatiboaren eraginkortasuna ukatzen dutelako

el impacto del VIH tiene dimensiones dantescas y dramáticas, y en los que el uso del preservativo es, en la mayoría de las ocasiones, el único instrumento útil y eficaz para combatir la enfermedad. En lo que se refiere a nuestro país, las declaraciones del Pontífice tienen una evidente repercusión derivada de la implantación de la Iglesia Católica en nuestra sociedad y la labor divulgadora de sus clérigos que hagan suyas dichas declaraciones y nieguen que el preservativo tenga efecto alguno en la prevención de la transmisión del virus del VIH.

Bostgarren puntura joaten naiz

(5) *Udal agintarien eskumena, osasun publikoaren gainean.* Osasunaren gaineko Lege Orokorrak eta Toki Erregimenaren Oinarrien gaineko Lege erregulatzaileek udal erakundeei egozten diete **osasun publikoaren gaineko eskumena eta erantzukizuna; baita lehen mailako osasun-harreraren kudeaketa ere.** Ez da udalbatza honen eginkizuna, jakina, katolikoen arteko kastitatea bultzatzeko Vatikanoko politikak baloratzea. Aitzitik, udalbatzaren lana da, agintari batek osasun gaineko sasi-mezua zabaltzen duenean, mezu hori salatzea; mezu horrek, gainera, egia zientifikoa urratzen duenean; eta argi dago preserbatiboak GIBa saihesten

(5) *Competencia de las autoridades públicas municipales en materia de sanidad y salud pública.* La Ley General de Sanidad y la Ley reguladora de las Bases de Régimen Local atribuyen a los entes municipales la **competencia y responsabilidad en protección de la salubridad pública y participación en la gestión de la atención primaria de la salud**. Ciertamente, no es competencia de este pleno municipal valorar las políticas vaticanas relacionadas con impulsar la castidad entre los feligreses católicos. Pero sí lo es cuando una autoridad pública ajena al municipio propaga entre los ciudadanos un mensaje sanitario falso por quebrar la verdad

duela.

científica, porque es inequívoco que el VIH se evita con la utilización del preservativo.

Seigarren puntura pasatzen naiz

(6) *GIBaren aurkako borroka eta politikoen laguntza*. 2009ko apirilaren 2an, **Belgikako Parlamentuak** Ebazpen-proposamena onartu zuen. Proposamen horri begira dago mozio hau. Ebazpen-proposamen horretan, Benedikto XVI.ak egindako adierazpenak ezesten dira.

(6) *GIBaren aurkako borroka eta politikoen laguntza*. 2009ko apirilaren 2an, **Belgikako Parlamentuak** Ebazpen-proposamena onartu zuen. Proposamen horri begira dago mozio hau. Ebazpen-proposamen horretan, Benedikto XVI.ak egindako adierazpenak ezesten dira.

Hain dira larriak Aita Santuak egin dituen adierazpenak; eta hainbesteko eragina izan dezakete behin eta berriro esparru desberdinetatik egin diren adierazpen horiek, ezen pentsatzen dugun edonongo autoritate publiko edota arduradun sanitario, udal agintariak barne, EZIN dela burumakur gelditu sasi-adierazpen horien aurrean. Halaber, GIBaren eraginpean eta garapen bidean dauden herrialde asko eta asko, batez ere Afrikan, kinka larrian jartzen ditu.

Ante la gravedad y posible trascendencia de lo afirmado por la máxima autoridad vaticana, y al existir precedentes de pronunciamientos a distintos niveles, entendemos que ninguna autoridad pública ni responsable sanitario, incluido la autoridad municipal, pueden quedar inactivos ante manifestaciones falsas que dificultan y ponen trabas al desarrollo de países afectados por pandemias como el VIH que llegan a devastar continentes como el africano.

Horregatik guztiagatik, beste erakunde-egoitzetan egin den moduan, zuei ere gauza bera eskatzen dizuegu eta honako hau aurkezten dugu

Por todo ello instamos en los mismos términos en que se ha valorado en otras sedes, y presentamos la siguiente

Mozioa

(1) Udalbatza, kezkatuta egoteaz gain, ez dago ados Benedikto XVI.a aita santuak esandakoekin. Benedikto XVI.a aita santuak esan zuen "HIESa/GIBaren arazoa EZIN dela konpondu preserbatiboen banaketarekin; aitzitik, preserbatiboek arazoa handitu egiten dutela". **Udalbatzak adierazten du gizonezkoentzako latexko preserbatiboa dela GIBa eta sexu bidezko infekzioen aurkako teknologiarik eraginkorrena.**

(2) Udalbatzak GIBaren aurkako borroka sustatuko du. Horretarako, zehaztasun zientifikoetan oinarrituko da, eta, era berean, preserbatiboaren erabileraren sustatzaile izango da, sexu bidezko gaixotasunen aurkako metodo eraginkorra delako.

Moción

(1) Esta corporación municipal expresa su preocupación y rechazo ante las declaraciones del Papa Benedicto XVI en las que señalaba que "no se puede superar (el SIDA) con la distribución de preservativos, al contrario aumentan el problema", y afirma, siguiendo criterios exclusivamente científicos, que **el preservativo masculino de látex es la tecnología individual disponible más eficaz para reducir la transmisión sexual del VIH y otras infecciones de transmisión sexual.**

(2) Esta corporación se compromete a apoyar la lucha contra el VIH mediante políticas basadas en evidencias científicas y a difundir el preservativo como método eficaz para prevenir la difusión de la enfermedad.

Eta onar dadin EGHAM-en izenean Udalbatza honetara ekartzen dugu,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aurrekoan bezala nahi baldin baduzue, eh? PNV

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Bueno, gure mozio alternatiboa irakurriko dut,

*Udal agintarien eskumena, osasun publikoaren gainean.*

Osasunaren gaineko Lege Orokorrak eta Toki Erregimenaren Oinarrien gaineko Lege erregulatzaileek, bere 2.artikuluan,

*Competencia de las autoridades públicas municipales en materia de sanidad y salud pública.*

La Ley general de Sanidad y la Ley reguladora de las Bases de Régimen Local, en el artículo 2º

h eta i ataletan, udal erakundeei egozten diete osasun publikoaren gaineko eskumena eta erantzunkizuna; baita lehen mailako osasun-harreren kudeaketa ere.

Edonola ere, osasun-sistema moderno eta aurrerakoi baten antolakuntza Zumaia bezalako udal baten (eta orohar, edozein Udalen) eskumenetik at geratzen den kontua izanda, Osakidetzaren ardura dela ulertzen dugu.

Hala ere, arrazoia du EGHMAN-ek Udalbatza honen eginkizuna ez dela katolikoen arteko kastitatea bultzatzeko Vatikanoko politikak baloratzetik pasatzen.

Bestalde, egia da, Eliza Katolikoko ierarkiatik haratago, nazioarteko osasunaren inguruan zeresana duten erakunde guztiek bat egiten dutela, GIBaren gaixotasunari mugak era eraginkorrean jartzeko bide zuzenena preserbatiboaren erabilpenetik pasatzen dela baieztatzerakoan.

Beraz,
Zumaiako EAJ-PNVko udal taldeak honako mozioa aurkezten du:

- Irizpide zientifiko hutsak baliatuz, gizonezkoentzako latexko preserbatiboa da GIBa eta sexu bidezko infekzioen aurkako teknologiarik

apartados h e i, atribuyen a los entes municipales la competencia y responsabilidad en protección de la salubridad pública y participación en la gestión de la atención primaria de la salud.

Aun así, la organización de un sistema de salud moderno y progresista queda al margen de la competencia de un ayuntamiento como Zumaia (y en general de cualquier ayuntamiento), y entendemos que la responsabilidad recae en Osakidetza.

No obstante, tiene razón EHGAM al afirmar que no es competencia de este pleno municipal valorar las políticas vaticanas relacionadas con impulsar la castidad entre los feligreses católicos.

Por otra parte, más allá de la jerarquía de la Iglesia Católica, es verdad que todas las organizaciones internacionales relacionadas con la salud coinciden al afirmar que el uso del preservativo es la vía más directa para reducir eficazmente la transmisión del VIH.

En consecuencia,
El grupo municipal EAJ-PNV de Zumaia presenta la siguiente moción:

- Según criterios meramente científicos, el preservativo masculino de látex es la tecnología individual disponible más eficaz reducir la transmisión

eraginkorrena.

- Udalbatzak GIBaren aurkako borroka sustatuko du. Horretarako, zehaztasun zientifikoetan oinarrituko da, eta, era berean, preserbatiboaren erabileraren sustatzaile izango da, sexu bidezko gaixotasunen aurkako metodo eraginkorra delako.

sexual del VIH y otras infecciones de transmisión sexual.

- Esta corporación se compromete a apoyar la lucha contra el VIH mediante políticas basadas en evidencias científicas y a difundir el preservativo como método eficaz para prevenir la difusión de la enfermedad

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Bai, nik bakarrik esan bi mozioen aldeko botoa emango diogula, eta bakarrik esan guri Benedikto XVI. Zer esaten duen edo erlijio desberdinen buruzagiak zer esan dezaketen bost axola zaigula, baina bueno bi mozioen aldeko botoa emango dugula

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Eztabaida hori, orain Xabierrek esan duen eztabaida hori, nik ere askotan eduki dut, bost axola duen edo ez duen, ez? Baina zoritxarrez edo zorionez, Aita Santuak baduak horrelako botere bat usten duguna baina gehiago lehen aipatu dut eh? baina gizarteko zenbait sektoreengan, eta horrelako gai baten inguruan hitz egiten ari garenean eta batez ere osasunarekin zer ikusia daukan jendea hiltzen duen gaitz batekin, hitz egiten ari garen gain, norbaitek horrelako boterea daukan batek, gai zientifikoak alde batera utzita horrelako deklarazioak egiten dituenean, gutxienez botere publikoari erantzunkizuna daukagun botere publikoari tokatzen zaigu zerbait esatea, zeren bost axola digun horrekin, eta berriz ere esaten dizut, niri ere askotan pasa izan zait bost axola digunaren argumento hori, baina bost axola digunaren argumento horrekin boterea daukaten zenbaitzuk bere influentzia dudarik ez dago badaukatela, ez?
Eta gutxienez influentzi hori daukatenaren aurrean, guk administrazio bezala zerbait esan beharra daukagu, beste gauza batzuren artean, administrazio bezala, baita ere osasunaren arduradun garelako baita ere, ez? Ez kasu honetan udaletxea bera, baina bai beste edozein administrazio, orduan neurri batean ulertzen dut argumento hori esanaz, ze inporta digun, berez, gu ez garelako inoren menpe, gu botere zibila garelako eta ez botere erlijiosoa, dudarik ez dago, baina botere zibila garen neurrian beste botere bat duenari gutxienez eskatu behar dioguna da arduraz jokatzea, guri tokatzen zaigun bezala, arduraz joatzea.

Gero, bai, gehitu nahiko nuke ez daukala zer ikusirik,
1.- Erlijiosoa izan edo ez izan, baizik eta gaia dela deklarazio zehatz batzuen aurrean hartu behar den jarrera, ez? nahiz eta ulertzen dudan lehen esan dizudan bezala ze... eztabaida hori behin baino gehiagotan eduki dut eta niri duda ere sortu izan zait behin baino gehiagotan gu botere publiko bezala sartu behar dugun eztabaida horretan edo ez.
Baina niri iruditzen zait ba... bai; zenbait kasutan behintzat sartu beharra dauzkagula batez ere horrelako adierazpen larriak egiten dituenean eta egiten dituen tokian egin da, gainera ere, es ke... horrek inkluso larritasun gehiago dauka, non eta Afrikan ez? hainbeste jende hiltzen den tokian.
Besterik gabe, ez dakit besteren batek zerbait esan nahi duen edo ez?

Barkatu Andoni,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Kontua da mozio hau gaur hemen baldin badaukagu, ez dela ba... arrazoia da bere garaian mundu mailan bere mezu bat zabaltzeko botere haundia duen pertsona batek, ba... mezu desegoki bat zabaldu zuelako, ez? Kontestua hori da, ez? Mozio horri edo egoera horri erantzuten zaio eta kontestua hori da eta horregatik aurkezten da.
Nik EAJ-PNV-ren mozioaren aurkezpena, ez dakit, ez dut ulertzen oso ondo zeren ba... bueno bere garaian deklarazioak egin zituena aipatu ere ez da egiten beroien mozioan, bai ordea aipatzen da EGHAM mozioa aurkezten duena eta arrazoia ematen dio puntu zehatz baten eta badirudi beste guztietan ez duela edo ez dakit...
"Arrazoia du EGHAM-ek udal honen eginkizuna ez dela...." ez dakit zer esaten duela ez? hori ondo dago; baina beste guztian ba...guk gurea aurkezten dugu, ez?
Eta nik usten dut kasu honetan benetan ba... XXI. Mendean XI. Mendeko mezuak zabaltzen dabilenari ez, zuzendu beharko genitzaizkiola ez? Ba.. egin dituen adierazpenak egin dituen lekuan ba... nire ustez –es un arma de destrucción masiva- ba... Afrikan SIDA-k eragiten duen kaltea izugarria da miloia pertsona hiltzen dira, miloika eta miloika eta jende asko borroka izugarri bat egiten ari da egoera horrei buelta emateko eta Aita Santua ailegatzen -y con su sotana- botatzen du kristona, botatzen du, eta jende batek egiten duen lan guzti hori urteetakoa eta urteetakoa ordu laurden baten txikitu egiten du eta milaka eta milaka pertsona kondenatzen ditu HIES-a edukitzera eta horrek duen eragina, Afrikan.
Afrikan ez dute ez da ere medikamentuentzako, guretzako zorionez enfermedade edo gaixotasun kroniko bat da, baina Afrikan, hiltzeko modu mantso eta izugarri bat da, gogor bat da eta horretara kondenatu ditu bere adierazpenekin eta bere desinformazioarekin. Arduraz jokatu beharko luke horrelako pertsonaje publiko batek eta iruditzen zaigu arduragabekeriaz

jokatu duela, guri bost zorionez, gu lehendabiziko munduan bizi garelako baina hau hirugarren munduan egiten du kalte, eta hirugarren munduari begira saiatu beharko ginateke guk ere erakundeetatik ba... hanka sartzen duenari, hanka sartzen duela adierazi eta berriz ere sartu ez dezala eskatu.
Eta bueno.. deiagarria egiten zait Benedikto ez dela aipatu ere egiten zuen mozioan, eta bueno... ez dakit, igual erreparoa ematen du, ez dakit, hitz egiten da eliza katolikoaz, Vatikanokoen politikak, baina gaur hemen honetaz hitz egiten ari baldin bagara, ba... izen abizen batzuk ba... bere garaian deklarazio izugarri batzuk egin zituelako da.
Eta besterik gabe, guk gure mozioa onartuko dugu nola ez; eta EAJ-PNV-rena kontestutik kanpo ikusten dugu eta azken finean mozio honetan jasota dagoena errepikatzen du, baina kontestualizazio guztia hustuaz eta benetako ba... ardurak eta arduradunak ondo identifikatu gabe.
HIES-aren kontrako borrokan jarraitu behar dugu eta HIES-aren kontrako borrokaren kontra ari direnei ere esan behar diegu, faborez ba... ez sartzeko bere arloa ez den unetan eta ez kalte gehiago egiteko faborez, asko egin dute eta,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: PNV.

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Egia da guk Benedikto XVI. Ez dugula aipatu ere egiten, baina usten dut mozioaren mamian sartzen garela eta oso ados azaltzen garela preserbatiboaren erabilpenaren alde eta neurri guztiak hartzekoaren alde.
Honeraino ekarri behar den edo ez Benedikto XVI. Esandakoak?
Batzuek argudiatzen duzue baietz eta beste batzuk ezetz. Baina nik usten dut mamian, azkenean bi mozioak gauza berdina esaten dutela, batzuek aurrekari batzuek dauzkatela eta beste batzuek aurrekari horiek ba... suprimitu egin ditugula, ez? Baina mamia eta funtsa ba... berdina daukatela

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Besterik gabe, bozkatzera pasako gara, eh? Aurrena bozkatuko dugu ordenean dagoen bezala, eh? aurrena guk Gobernuak aurkeztutako eta gero PNV-ren alternatiba, PNV?

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Aurrenengoa Abstenitu,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Abstentzioa,

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Aldeko botoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botoa,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botoa eta guk ere aldeko botoa;

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 6 boto (3 Talde Mistoa; 2 Aralar/Alternatiba, 1 EA;)

Aurkako botuak: 0
Abstentzioak: 3 ( EAJ-PNV)

**LEHENENGOA:** BENEDIKTO XVI.A AITA SANTUAK PRESERBATIBOAZ EGITEN DITUEN AZALPENEAN GAINEZKO PROPOSAMENA (EHGAM); UDAL GOBERNUAK AURKEZTURIKO PROPOSAMENA:
ONARTZEA,

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 6 votos ( 3 Grupo Mixto; 2 Aralar/Alternatiba; 1 EA;)

Votos en contra: 0
Abstenciones: 3 (EAJ-PNV)

**PRIMERO:** APROBAR LA PROPOSICION PRESENTADA POR EL EQUIPO DE GOBIERNO:
SOBRE LAS DECLARACIONES DEL PAPA BENEDICTO XVI SOBRE LAS PROPIEDADES DEL PRESERVATIVO (EHGAM)

Eta orain PNV-ren alternatiboa, PNV?

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Aldekoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldekoa,

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Zuek aldeko botoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botoa, Talde Mistoak?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Abstenitu

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Abstentzioa eta EAk aldeko botoa;

| ERABAKI ZATIA | PARTE RESOLUTIVA |
|---|---|
| Aldeko botuak: 6 boto (3 EAJ-PNV; 2 Aralar/Alternatiba, 1 EA;) | Votos a favor: 6 votos ( 3 EAJ-PNV; 2 Aralar/Alternatiba; 1 EA;) |
| Aurkako botuak: 0<br>Abstentzioak: 3 ( Talde Mistoa) | Votos en contra: 0<br>Abstenciones: 3 (Grupo Mixto) |
| **LEHENENGOA:** EHGAM-EN IZENEAN AURKEZTUTAKOAREN GAIN EAJ/PNV UDAL TALDEAK AURKEZTURIKO PROPOSAMEN ALTERNATIBOA ONARTZEA, | **PRIMERO:** APROBAR LA PROPOSICION ALTERNATIVA PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL EAJ/PNV ANTE LA PRESENTADA POR EHGAM. |

Azkenengo puntua aurki epaitzen hasiko den **"Egunkaria auzia"-ren aurkako Zumaiako Udaleko, TALDE MISTOAren, EA-ren eta EB/ARALARren udal-taldeek aurkeztutako proposamena.**
Eta gai berdinaren inguruan **EAJ/PNV UDAL TALDEAK AURKEZTURIKO PROPOSAMEN ALTERNATIBOA, " Egunkaria auzoa" dela eta.**

Nik bai adierazi, Egunkariaren auziak baduela sakontasun haundi bat gizarte honetan, atzo Iñaki Uria izan genuen hemen Pleno areto honetan presente eta beraren iritziak eta bizipenak entzuteko aukera izan genuen, zoritxarrez ba... espiral zorigaiztoko batean sartuta gaude guztiok eta bueno... askotan zentzugabeko ba... arduragabekeria edo erantzunkizunak leporatzen zaizkie bai Iñaki Uriari, Martxelo Otamendiri eta beste hainbat langileei, Egunkarian egon zirenen gain eta guzti horren gainetik iruditzen zait, bai PNV-k sartu duen mozioa, bai guk aurkezten dugun mozioa erabat berdintsua dela eta hiruron izenean hitz egiten dut, bai Aralar/Alternatiba, Talde Mistoa eta EA-ren izenean, kontsentsu bat bilatu asmoz, guk gurea erretiratzen dugu, azken finean berdintsua delako PNV-k planteatzen duen mozio berdina eta kontsentsu bat bilatu nahiean, bakarrik bozkatuko genuke PNV-k aurkezturikoa esanaz ba... hiru taldeak aldeko botoa emango genukeela lehen esan dudan bezala, kontsentso hori bilatu asmoz eta batasuna bilatu asmoz,
Besterik gabe ba... nahi baldin badugu bozkatzera pasako gara eta batasunari irudikatuko dugu,

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Aldekoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: PNV-k aldeko botoa,

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Aldeko botoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botoa,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Bai, nik ere zerbait komentatu nahiko nuke, guretzako ere eta horrela komentatu du Iñakik, egoera honetan eta momentu honetan garrantzitsuagoa da, ba... benetan garrantzitsua den horretan alde jartzea eta egon daitezkeen ba... matiz eta egon daitezkeen ba... elkar aurkitzeko ba... arrazoi txiki horien gainetik, ba... horrelako egoera baten aurrean ba... elkartzen gaituzten eta adostu genitzazkeen ba... puntuak balorean jartzea iruditzen zaigu garrantzitsuagoa dela.
Egunkariarekin egiten dutena, egiten ari direna kontuan hartuta iruditzen zaigu eta herriak horrela eskatzen du eta gure aurreko mozioan ere azaltzen zen ba... herriak eskatzen dituela ba... alderdi politikoak ba... elkarturik eta indarturik ikusita eta benetan ba... adostea, adostasun minimo horiek eta aurrera eramatea zeren behar du herri honek behingotik ba... betiko gure

ahalbidade sistematiko hori ba... detaile txikietan fijatu eta azkenean gauza garrantzitsuak egiteko gaitasunik ez eduki eta nik uste dut, ba... hemen garrantzitsua dela oraindik eta gehiago ekarmen ekonomiko bat bai edo ez, baino garrantzitsuagoa da guztiok ba... Egunkariaren auziaren salaketa eta Egunkariaren auzian baitan ba... pairatzen ari direnei eta pertsona horiekiko gertutasuna adieraztea, horregatik, ba... bueno EAJ-ren mozioa edo... babesten dugu eta iruditzen zaigu ba... mozio hori azken finean aurkeztuta zegoenaren ispiritutik datorrela eta garrantzitsuena bertan jasota geratzen denez ba... bilatuko ditugu bideak Egunkarikoei ere laguntzeko eta gertutasunetik eta elkartasunetik nik usten dut gehiago lagunduko dugula eta betiko ba... abstentzio eta baietzko eta nik usten dut hemen denok gaur elkarrekin egotea balore haundia duela eta hori da balorean jarri behar duguna,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Beraz Talde Mistoak ere aldeko botoa, eta EA-k ere aldeko botoa

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 9 boto (3 EAJ-PNV; 3 Talde Mistoa; 2 Aralar/Alternatiba, 1 EA;)

Aurkako botuak: 0
Abstentzioak: 0

**LEHENENGOA:** AURKI EPAITZEN HASIKO DEN "EGUNKARIA AUZIA"- REN AURKA AURKEZTURIKO PROPOSAMENA AHO BATEZ ONARTZEA,

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 9 votos ( 3 EAJ-PNV; 3 Grupo Mixto; 2 Aralar/Alternatiba; 1 EA;)

Votos en contra: 0
Abstenciones: 0

**PRIMERO:** APROBAR POR UNANIMIDAD LA PROPOSICION PRESENTADA ANTE EL PRÓXIMO JUICIO DEL " CASO EGUNKARIA"

Zazpigarren puntua, ESKARI GALDERAK,

Eskari-Galderetan nik bai adierazteko daukat gauza bat, Idazkariak horrela eskatuta, aste honetan bertan oker ez baldin banago, sartu da idatzi bat Ezker-Batua/Aralarren aldetik, esanaz beraien denominazioa edo izena aldatzeko, Idazkariak esan zidan Plenoan horren berri eman behar nuela, egia esan, horren berri ondo, gehiago aztertzeko astirik ez dut eduki, ez

dakit Idazkariak zerbait esateko daukan baina nik esan behar dudana da, behintzat, eskatu dutela ARALAR/ALTERNATIBA izena erabiltzea.

Ez dakit Gorkak zerbait esateko daukazun, zuk? Nik ez dut gehiago.... astirik ez dit eman egia esan gehiago ezer ikusteko eta ezer egiteko, zuk zerbait esan nahi duzun edo…

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA:: Guk bakarrik esan idatzi hori sartu dugula, izena aldatu diogula gure koalizioari, orain ARALAR/ALTERNATIBA izango garela eta bozeraemailea ba… ni izango naizela,
Besterik gabe,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bueno berri izateko eta jakiteko ba... Idazkariak esan zidan Plenora ekartzeko idatzi hori sartu zutela eta gero gainontzean ba... ez dakit honi buruz, beste zerbaiti buruz bateren batek zeozer esateko daukazuen edo....

Ezerrez, eskerrik asko etortzeagatik,

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat ematen du, gaueko bederatziak direnean eta nik Idazkariak fede ematen dut,

No habiendo más temas que tratar, el Alcalde-Presidente dá por finalizada la sesión cuando son las veintiuna horas y yo el Secretaría doy fé,

Alkateak,

Idazkariak,